

APIRILAREN 8a, IJITO HERRIAREN NAZIOARTEKO EGUNA
ERAKUNDE ADIERAZPENA

Gaur, munduko toki askotako ijitoak elkarrekin bilduko dira. Londonen 1971ko apirilaren 8an izandako Ijitoen Mundu Biltzarraren urteurrena ospatuko dute —izan ere, orduan ofizialdu zen ijito herriaren bandera eta ereserkia (Gelem Gelem)—; baina, baita ijitoen exodoa, ijito herriaren eta haien arbasoen erromesaldia oroitarazi ere.

Horiek horrela, guk ere ez dugu ahaztu behar ijito familia asko direla XVI. mendeaz geroztik Euskal Herrian bizi direnak eta herri honen kultur aniztasuna errespetuz bizitzeko asko falta dela gogorazten digutenak, eta elkarrekiko errespetu hori ez dela denbora kontua, borondate sozial eta politiko kontua baizik.

Gaur egun, ijitoen kontrako jarrera, etniagatik diskriminatzeko modu gogorra da, eragin erabakigarria duena ijito askoren bizimoduan; hezkuntza, etxebizitza, enplegua, osasun asistentzia eta ondasun eta zerbitzu publikoak eskuratzeko bidea izatea galarazten die eta. Adibide asko aurkitu ditzakegu, oraindik ere ijitoen kontrako sentimendu handia dela erakusten digutenak; izan ere, honelako krisialdietan, ijitoak etsaitzat hartzen dira eta galarazi egiten da haien berdintasun eskubidea eta ez zaie duintasunez bizitzen uzten.

Era berean, ijitoen elkarteen eta ijitoen aldeko elkarteen mugimendua ere gogorarazi eta haien oroitzapena egin beharra dago, ijitoen kulturari bizirik eusteko eta ijito herria aintzakotzat hartzeko lan egite aldera.

Hori dela eta, Donostiako Udalak erabaki du:

1.- Donostiako Udalak jokabide xenofobo eta arrazista mota guztien kontra dagoela adierazi nahi du, eta errespetuz bizitzeko deia egiten die herri eta kultura guztiei.

2.- Donostiako Udalak dei berezi bat egin nahi die aurten komunikabideei, erantzukizun sozialez joka dezaten ijito komunitatearen irudi soziala tratatzeko garaian, eta adierazi nahi du ez dagoela batere konforme ijito herriaren duintasunaren kontura ikuskizuna sortzen duten telebista programekin.

3.- Donostiako Udalak dei egin nahi die gizarteari eta, batez ere, erakundeei eraginkortasun handiagoz aplikatzeko gai honetako legeria eta ijito-fobiaren kontrako borrokari lehentasuna emateko agenda politikoetan.

4.- Donostiako Udalak berriz ere amore eman nahi die ijito herri guztiari, ijito elkarteei eta donostiar guztiei elkar aintzakotzat hartzeko, errespetatzeko eta elkarrekin bizitzeko lanean jarrai dezaten.